

noaua

Euskaraz bizitza eskatzeko, manifestazioa deitu dute Donostian

Barazki pintxoak, igande honetako Tipi-Tapan

Gasteiz aldeko kantariak arituko dira larunbateko kantu-jiran

**Berritua izan da
Zubietako Eskola Txikia**

Ontzi arinak ondo bereizteko zenbait gomendio



Lehenengo 6 erosleentzako, garaje bikoitza banakako prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik



12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpiⁿ

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albiste iruditan

Udal jabegoko bi etxebizitza salgai Santuenean

Usurbilgo Udalak enkantera aterako ditu Santuenea auzoko bi etxebizitza. "Etxebizitza hauek Udalak jaso zituen 2012an, Babes Ofizialeko esleipendunak lehenagotik jabetzan zizutenak hain zuzen ere. Legeak aurreikusten du Babes Ofizialeko etxebizitzak lortzeko aukera izatea, nahiz eta alde aurretik jabetzan etxebizitza bat izan. Horretarako, hainbat klausula bete behar dira eta horien artean Udalarik ematen zaio aukera jabetza hori eskuratzeko, beti ere Babes Ofizialeko etxebizitzek markatzen duten prezio berdinean.

Aukera hau onetsi zuen Udalak, Babes Ofizialeko esleipendunek modu librean saltzeko aukera izango baitzuten bestela. Horrela, eta espekulazioari bideak mozteko borondatearekin, Udalak erosi zituen prezioan orain salgai jarriko ditu eta enkantean ateratzea erabaki da. Legez, administrazio prozedurak ezartzen



Bi etxebizitzok ikusteko aukera izango da martxoaren 10ean eta 12an.

du Udal jabetzako salmentak enkantearen bidez egin beharra eta, hau horrela izanik, irteera prezioa hobetzen duten eskaintza onenei izendatuko zaizkio etxebizitzak", berri eman du ohar bidez, Usurbilgo Udalak.

Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unetik zenbatzen

hasita, eskaintzak aurkezteko 20 eguneko epea egongo da.

Interesdunek, bi etxebizitzok ikusteko aukera izango dute, martxoaren 10ean eta 12an.

Horretarako hitzordua eskatu beharko da aurrez, udaletxeko 943 371 951 telefono zenbakira deituta.

Laburrean

Elkarretaratzea, presoek eskubideen alde

Euskal presoek eta haien senideen eskubideak errespetatuak izan daitezken eta sakabanaketa amaitzea eskatzeko, Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituriko elkarretaratzea ostiral honetan, 20:00etan Mikel Laboa plazan.

Datorren astelehenean, odol ematea

Datorren astelehenean, martxoaren 2an, 18:00-20:30 artean odola emateko aukera izango da, herriko anbulatorioan. Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak eginiko hitzordua irekia da.

Txaldataxurreko lubakia txukuntzeko deialdia

Aurreko larunbaterako deialdia bertan behera geratu ondoren, larunbat honetarako jarria dute Zubietako Txaldataxurreko lubakia txukuntzeko auzolanerako hitzordua. Goizeko 8:15ean, aitzurra eta palak hartuta, Artzabaletan.

noaqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkarte@noaqua.com // www.noaqua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaqua.com

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzio@noaqua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Arna-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Imanol Ubeda

Denona den hori

Garai nahasietan bizi gara. "Kapitalak dena irentsi nahi du, dena jarri nahi du hankaz gora, dena nahi du jarri salgai, merkatuaren lege bihozgabeen mende: bai osasuna, bai hezkuntza, bai hizkuntzak, bai lan harremanak, bai sorkuntza, bai maitasuna, bai jendea... Aseezina da. Eta onura eta irabazi ekonomikoak, diruak, elkarrekin lehiatu beharrak gauza itsusiak onartzera eta egitera garamatza". Hala azaldu zen poeta, hedabideen aurrean.

Eta "horren guztiaren aurrean aterpe bat, erresistentzia eremu

bat osatu nahi izan dut poema hauekin. Eta barka harrokeria". Xume agertu ere poeta, kazetarion aurrean.

Garaiak nahasiak izanik ere, ezin ahanzi kapital publikoa dela "denona den hori, eta inork bereztat bakarrik hartzerik ez daukana. Gabiltzan kalea, arnasten dugun airea, mintzo garen hizkuntza, pertsonak, oroitzapenak, egunkaria, sentimenduak. Baina aldi berean, kapitala da jendea ezer gabe uzten duena, jendeari dena ken liezaiokeena. Kapitala, kapitalismoa, sistema zapaltzaile hori". Poetak, hitz hauen bitartez, zer pentsatua eman zigun liburu berriaren

aurkezpenera batu ginen kazetarioi.

Bizi ditugun garai aldrebes hauetan, gogoeta sozial eta politikoa abiatu eta eguneroko bizimodu intimorainoko bidaia bat erakutsi nahi digu idazleak bere lan berriarekin. "Galtzerik nahiko ez nituzkeenak, salatzeko modukoak iruditzen zaizkidanak, babestu beharreko josten ditudan gauzak dira poema hauen muina".

Esan dugu. Garai nahasietan bizi gara. Eta poeta, 45 poema berrien bitartez, kapital publiko hori babestera dator, "neure erara. Hori aldarrikatzen dut

neure era intimo eta poetikoaren bitartez".


Orain, osasuna, hezkuntza, hizkuntzak, lan harremanak, sorkuntza, maitasuna, jendea... Dena gainbehera datorren aroan, helduleku bat seinatu digu poetak: "Kapital publiko zaindu beharreko mundu egingarrien aukera da".

Kapitalaz hainbeste hitz egiten den garai nahasi hauetan, "kapital publiko hartuta" etorriko da poeta Potxoeneara. Jose Luis Otañendi. Martxoaren 5ean osteguna arratsaldeko 19:30ean, *Kapital publiko* (Susa) liburuko hainbat poema boz altuan eskaintzera.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Ilazki Gainza | Luis Aranalde | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Joxe Piñas

Sutegi udal liburutegiko txokoa

Mailegatuenak 2014 (II): Sutegi udal liburutegia



8-11 urte:
Nur eta kobazulo liluragarria
Toti Martínez de Lezea,
Elkar 2014

Nina, diario de una adolescente
A. Guerrero, Montena, 2013

La dentista demonio
D. Williams, Montena, 2014

Gehiago: www.pinterest.com/sutegi05/4-mailegatuenak-2014-haur-bokoa-8-11-urte/



Haur-Gazte Liburutegiko Jakintza Arloa:
Bizitzaren laborategian
Galarraga, A. Marikalanbre Elhuyar, 2014

Ikas-Jolas (CD-ROM), 2011

El libro que hará que te encanten los libros
F. Boucher, SM, 2014

Gehiago: www.pinterest.com/sutegi05/5-mailegatuenak-2014-haur-eta-gazte-liburutegiko-j/



Gazte Literatura (12 urtetik gora):
San Ferminetan, Lesakan
J. Andueza, Elkar, 2014

Juegos, inocentes juegos
R. Gómez, Edelvives, 2013

Tximistaren lapurra
R. Riordan, Mezulari, 2013

Gehiago: <https://www.pinterest.com/sutegi05/6-mailegatuenak-2014-gazte-literatura-12-urtetik-a/>

Sutegi Udal Liburutegia

Liburutegia non?: Irazu 14

Eta sarean:
Bloga, <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/>

Twitter:
@usurbil

Facebook:
Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegia

Noaua! Komunitatea:
Sutegi Udal Liburutegia

App:
Liburutegiak

Sutegi Udal Liburutegia

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOUAUk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: martxoak 6. Idatzia ekartzeko azken eguna: martxoak 2.

Euskaraz bizitzea eskatzeko, manifestazioa egingo da larunbatean

Oztopoen gainetik euskaraz biziko gara lemapean, manifestazioa deitu du Kontseiluak, larunbat honetarako, otsailaren 28rako Donostian, 17:30ean Gipuzkoa Plazatik abiatuta. Hizkuntza-politiketan azken aldian Estatuaren zein Nafarroako Gobernuaren bidez jasandako injerentziak salatzea eta hainbat administrazioetako arduradunek aurrera egiteko hartu duten determinazioa txalotzea da mobilizazioaren helburua. “Bada garaia, horiei, euren aginduak gurean ez dira zilegi esateko. Gure herriaren berezko hizkuntzan bizitzeko eskubidea eta asmo dugula irmo adierazteko. Gure hizkuntzari lotutako erabakiak hartzeko aske izan nahi dugula esateko”, adierazi dute deitzaileek. Euskaraz bizi nahi duten herritar guztiak manifestazioan parte hartzera gonbidatu dituzte.



Larunbateko manifestazioa Donostiako Gipuzkoa Plazatik abiatuko da, 17:30ean.

Mozioa

Euskarari loturiko mozioa aurkeztekoak ziren astearte honetarako iragarria ze-

goen otsaileko osoko ohiko bilkuran, Usurbilgo EHBildu, Hamaikabat eta EAJ-

PNV. Bilkurak emandakoren berri, datoren astekarian izango duzue.

Ika-Mika

Oztopoen gainetik euskaraz biziko gara!

Azken hilabeteotan euskararen normalizazioari eta hizkuntza-politikei eragiten dien esku-hartze desberdinak ezagutu ditugu. Ez da gai berria, baina azken aldian nahikoa modu agerikoan gertatzen ari dela esan dezakegu. Frantziako Gobernuko ordezkari Patrick Dallennes eta Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkari Carlos Urkixo gelditu gabe ari dira euskaraz bizitzeko nahia egikaritzeko hainbat administrazio hartzen ari diren urratsak zapuztu nahian. Nafarroako kasuan ere, Nafarroako Gobernuaren bitartez Baztanen izan dugu adibidea.

Carlos Urkixo orain dela hilabete batzuk hasi zen zenbait udalen zein Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurkako neurriak hartzen. Aldi berean

Patrick Dallennes-ek Hendaiaiko ikastola laguntzeko Herriko Etxeak hartutako erabakiaren kontra egin zuen lehenik eta ondoren, Uztaritzeko Herriko Etxeak euskara ofizial izendatu izana salatu. Bada, azken egunotan eraso berriak egin dituzte bi Estatuak. Orain dela egun batzuk Paueko Administrazio Auzitegiak atzera bota du Uztaritzeko Herriko Etxeak euskara ofizial izendatzeko erabakia. Urkixok bere aldetik, UEMan dauden 15 udalen aurkako helegiteak jarri ditu Estatu espainiarreko gobernu ordezkarietara aktak euskaraz bidaltzeagatik. Eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren euskara plana ere auzitara eraman du. Nafarroako gobernuak berriz, Baztango euskara planari helegitea jarri dio.

Erantzule nagusiak horiek badira ere, erantzukizuna partekatua da. Herri honetan ardura politikoa duten guztiek dute afera honetan erantzukizun maila bat.

Kasu hauek agerian uzten dute euskaldunak ez garela askeak. Gaur gaurkoz, ez daukagu guk nahi dugun hizkuntza-politika egiteko dugun eskubidea aitortua. Hori ukatu egiten zaigu.

Erabaki hauekin, ikusten ari gara euskarari balioa kendu nahi diotela, beti frantsesaren edo gaztelaniaren ondoan agertzera behartuz.

Egoera honen aurrean, helegiteak jaso dituzten arduradunek euren jarrera argi azaldu dute eta hartutako erabakia irmotasunez defendatu dute, aurrera jarraitzeko determinazioa erakutsiz. Ez

dute euren erabakian atzera egingo. Oztopoak oztopo, euskaraz bizitzeko erabakiari eutsi diote.

Arduradun politiko hauek hartu duten erabakia txalogarria da eta euskalgintzak zein euskaraz bizi nahi duten herritarrek erabaki hori babestu eta eskertzen dugu. Hain zuzen ere, mobilizazio honekin, gure hizkuntza-politikak gauzatzen uzten ez diguten guztien jarrera salatzearekin batera, aurrera egiteko erabakia hartu duten horien jarrera txalotuko eta eskertuko dugu. Eta gainerako instituzioak ere hauek abiatutako bidea jarrai dezaten animatu nahi ditugu, gero eta gehiago izan daitezten.

Guztiok batera urratsak emanaz, euskaraz biziko gara!

Kontseilua



SANTUENEA

JON ETXABE

“Goiz gorri, gau iturri”

Hala esaten zigun gure aitonak. Goizean goiz leihotik begiratu eta eguzkiaren lehen printzek zerua gorritz tindatzen zutenean, aitoren aurpegia ez zen hainbeste argizatzen, gaueko euritearen iragarpenak lainotzen baitzuen bere pentsamendua. Nik, ordea, “barearen ostean dator ekaitza” esaten nion, itxaropentsu, hurrengo egun bat iritsi eta egunsenti gorri-berri bat ikusi nahian. Eta horrelaxe gaude etengabe gure auzoan, gure herrian, gure herrialdean... Ez dakigu non gauden, ekaitzaren ondorengo barealdi ederrean hala hurrengo enbataren aurreko itsaso leunean. Eta horrek norbanako bakoitzarengan (kontzientzia maila ezberdinetan) du eragina. Azkenaldian, ohikoak egin zaizkigu pentsamendu mingotsak, egoera zorrotzak, sentimendu arrotzak eta barneko ezinegon hau ia edozein egoeratan da jasagarria, ados, baina ez du gehiegi laguntzen goizero-goizero arropa geruza mordoaren azpian ezkutatu behar izateak. Honela, bai fisikoki eta bai psikologikoki, gure burua harresiz inguratzen dugu, eta zailagoa da elkarren arteko adostasunak lortzea eta hesi guzti horiek saihestea, horregatik da negua hain gogorra guztiontzat. Dena den, goizean goiz leihotik begiratzean, izugarritzko behe-lainoak estaltzen baditu markesinak, jada gure egunari bere gorri “punttua” jarri diezaiokegu, txuleta on batekin sabela beteaz.



AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

Zorte on, Luis Plaza

Luis Plaza 60 urteko sindikalista eta irakasle beteteranoa da. Kolombiako Cartagena de Indiasen jaioa. Boris bere emaztea eta hiru alabaren aita, gaztetatik izan du borrokarako grina, berauen bizitzak gutxi balio omen du gaur egungo Kolonbian, usteldurik dagoen estatu batean. SUDEB (Sindicato Unido de Profesores)eko militantea da, baita CUT sindikatuko idazkari nagusia ere Bolibarko eskualdean. Sindikatu hau 1986an sortua da, 800.000 afiliatuk osatzen dutelarik. Sindikatu honetako 3500 sindikalista erailak izan dira estatuaren biolentziaren poderioz. Luis bera hiru aldiz akabatzen saiatu dira, azkenaldikoz bera hiltzen saiatu zen sikarioa bere segurtasunaren ardura zen kideak hil zuen, oso momentu latzak bizi izan zituzten, baina azkenean bizirik ateratzea lortu zuten. Espainiara alde egitea erabaki zuen Luisek. Nik Mundu bat elkarrearen eskutik ezagutu dut Luis eta Luisek historia. Berak esan didanez, Euskal Herria zertxobait ezagutzeko aukera izan du eta Donostiako dena batean euskal txapela erosi, buruan jarri eta orduz geroztik, lotarako bakarrik kentzen duela aipatu zidan. Usurbilgo gaztetxean hitzaldi bat eman zuen eta Udaleko hainbat ordezkariarekin ere elkartu izan da. Kolonbiara itzuli beharra izan du Luisek. Ez dakit nik bertatik bizirik aterako den hurrengoan. Beraz, zorte on Luis.



KALEBERRI

MADDI ZALDUA

Tapia eta Leturiaren erritmora

Tapia eta Leturia Taldearen erritmora dantzatzeko gattunk larunbat honetan. Emanaldi benetan berezia izango delakoan nago. Urte batzuk badira, trikitilari eta pandero jotzaileak elkarrekin jotzen ez dutela. Baina oraingo honetan, Usurbilen, aurtengo urriaren lauan dugun erromka ardatz hartuta, musika emanaldia eskaintzera datoz.

Arrakasta ezin hobea izan du gainera aurtengo kilometroen alde antolatutako ekitaldi honek eta hori dela eta, emanaldi bikoitza eskainiko du musika taldeak.

Bestalde, larunbat honetarako ere badugu beste hitzordurik; sagastien zainketa ikastaroa jarriko da martxan. Alkartasuna Kooperatibak antolaturiko ikastaro honetan, sagarrondoaren neguko eta udako inausketa ezagutu eta ongarritzea, izurrite eta gaixotasunen jarraipena nola egin ikasteko aukera izango da, besteak beste. Azken honetan, alde aurretik eman behar izan da izena eta izen emate horrekin lortutako diru kopuruaren zati bat, urriaren lauko ekimena laguntzeko erabiliko da.

Badugu beraz, aitzakia bat baino gehiago, kilometroak-en alde etxetik atera eta asteburuaz gozatzeko, aukera bat baino gehiago. Batean ez bada, bestean ikusiko gattunk!



ATXEGALDE

MARIA JESUS URBIETA

Inauteriak

Pasa berria dugu aurtengo mozorro jaia. Umore ona eta festarako gogoia nabaria zen, nahiz eguraldiak lagundu ez. Baina neguaren bihotzean gaudenez, pasa egin behar, ez dago besterik. Garai honek atzera begiratzera eramanez, gazteak ginenean, eta urte asko dira, amak prestatutako torradak hartu eta eskolatik mendira joaten ginen monjarekin, Ostegun Gizen egunez. Ez ginen mozorrotzen baina ondo pasatzen genuen lagunekin. Beste garai batzuk ziren, baina polita zen. Gaztea izateak berekin baitu ilusioa eta indarra. Baina aurrera jarraitu behar, eta orain, jaiak pasa ondoren, bakoitza bere zereginetan murgildu behar. Gazteak ikasketetan buru-belarri edo kirol edo bestelako lanetan. Horrelakoa da eguneroko mundua, eta ezinbestekoa gainera. Aurrera egin behar, eta horrenbestez, garizuman sartu garen, udaberriari itxarongo diogu. Berehala etorriko baita. Bitartean, ondo izan denok!



Jasotzea tokatzen da orain



Foru Funttsaren likidazioa positiboa izan da. Horri esker, Usurbilek 34.561,82 euro jasoko ditu.

2014ko Foru Funttsaren likidazioa positiboa izan da, azken zazpi urteotan lehen aldiz, Finantza Kontseiluak ezagutzera eman dako datuen arabera. Ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundiak guztira, 4,1 milioi euro itzuliko dizkie herrialdeko udalei. Kopuru horretatik, 34.561,82 euro Usurbilgoari.

Foru Fondoaren likidazioa: Usurbil

- 2014ko aurrekontua: 3.455.360,91 euro.
- 2014ko likidazioa: 3.489.922,73 euro.
- Likidazio saldoa: 34.561,82 euro.

Saldo positiboa, legegintzaldi itxieran

Gipuzkoako Foru Aldunditik gogorarazi dutenez, 2007az geroztik, ez da likidazio positiborik egon. Jasotako dirua itzultzen aritu behar izan dute udalek urteotan. Baina geroz eta gutxiago, ahalik eta Aldundiari udalei dirua bueltan ematea egokitu zaion arte. Foru Funtsera itzuli beharreko diru kopurua murrizten lagundu du, legegintzaldi honetan zerga bilketan izan den %9,42ko igoerak. Udalak finantzatzeko funtsa berriz, %17,68 hazi da. 2014an 418,9 milioi euro jaso zituzten udalek (2013an baino %8,88 gehiago).

Azken lau urteotan udal kontuak onbidertzeko saiakerak emaitza onak ekarri dituela nabarmendu dute Aldunditik. Pozik agertu dira, eta Udalei harro egoteko arrazoiak badituztela azaldu zaie. "Harro egon behar duzue ez duzelako hurrengo legegintzaldirako inolako motxilarik uzten, egondako desoreka finantzarioei aurre egin diezue, eta zalantzarik gabe oso egoera sa-

UDALETXEEI DIRUA BUELTAN

"Foru Aldundiak guztira 4,1 milioi euro itzuliko dizkie herrialdeko udalei. Kopuru horretatik, 34.561,82 euro Usurbilgoari"

neatuan uzten dituzue zuen udalak. Pozik egoteko arrazoiak ditugu", esan die diputatu nagusiak Gipuzkoako alkateei.

Azken urteok zailak izan dira udal eta Aldundiarentzat. Horren adierazgarri, Udalek Aldundiari itzuli behar izan dioten dirutza. "Desfasea urtez urte murriztu da, harik eta aurten likidazioa aurrekontua baino 4,1 milioi handiagoa izan den arte", berri eman dute Aldunditik.

"Oraina da geroa", 2. fasea

Otsailak 26, osteguna

19:00 Aurrerakin dokumentuen aurkezpena Suteigiko auditorioan.

Martxoak 5, osteguna

19:00 Aurrerakin dokumentuen eztabaida Potxoenean.

Deitzailea: Usurbilgo Udala.

Informazio gehiago: usurbilorainadageroa.com (biletetako aurkezpen txosten eta memoriak web gune berean ikusgai).

Harrera bilera, erroldatu berri direnei zuzendua

Usurbilgo Udalak deituriko hitzordua, martxoaren 3an, asteartea, arratsaldeko 19:00etan Potxoenean. Bilkura, Udala jorratzen hasia den migrazioa eta aniztasunaren gaiaren baitan kokatu behar da. Aurrerantzean, sei hilabetero, aurreko urte erdian herrian erroldatu diren herritarrekin bildu nahi du Udalak, harrera bilera hauetan. "Aniztasuna era barneratzailean kudeatzeko bidean, harreraren garrantzia azpimarratu beharra dago, izan ere, elkarbizitzarako bidean eman beharreko lehen pausoa da, harrera ezin baita ulertu, elkarbizitzaren ikuspuntu orokorra kontutan hartu gabe", Udaletik berri eman dutenez.

"Ekimen berri honen helburuak, elkar ezagutza sustatzea, harreman berriak sortzeko aukerak zabaltzea eta herrian elkarbizitza erraztea lirerateke, besteak beste. Alkatearen agurra jaso ondoren, herriko baliabideen berri emango da, eta bizilagun berriek esperientziak trukatzeko aukera ere izango dute", deitzaileen esanetan.

"Oporrak Bakean" kanpaina izena emateko garaia da

Apirilaren 10era arte, zabalik dago Usurbilgo Udaleko Gizarte Zerbitzuetan, "Oporrak Bakean" izeneko proiektuan izen emateko epea. Egitasmo honen bidez, errefuxiatu kanpamentuetan bizi diren 7-12 urte arteko haur sahararrei, udan bi hilabetez, euren egoera gatazkatsutik eta desertuko tenperatura altuetatik urrundu eta "beste errealitate bat ezagutzeko aukera" eman nahi zaie. Informazio gehiago eta izen ematea:

Gizarte Zerbitzuak

- Kale Nagusia, 43
- 943 377 110
- gizartelangilea3@usurbil.eus

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

USURBIL AUTOAK
·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTXEEN SALMENTA

Ford

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!

zerbitzu ofiziala
Zumartegi industrialdea

943 36 10 79

Lilatoian ere Gattunk

Kilometroak15 ekimeneko oihartzuna Donostiako 26. Lilatoira helduko da igande honetan, martxoaren 1ean. Goizeko 11:00etan Bulebarretik abiatuko den emakumeen lasterketa herrikoia abiapuntua, Gattunk gunea ere izango da. Bulebarreko musika kioskoaren ondoan, urriaren 4an Usurbilen ospatuko den jaialdiaren aldeko materiala eskuratzeko aukera izango da; arropa, edota 60.000 euroko saria jokoan jarri duen "Gure Zozketa" ekimeneko errifak. Bertaratzen denak, usurbildarrek topo egingo du. Ez bakarrik, #Kilometroak15 ekimeneko materiala saltzeaz arduratuko den taldearekin. Postuan bertan, goizeko 10:00etarako hitzartu baitituzte, 26. Lilatoian parte hartuko duten Gattunk taldeko kideak ere.

40 emakume inguruk bat egin dute, #Kilometroak15 ekimenetik eginiko deialdiarekin Lilatoian ere Gattunk taldea osatzeko gonbita luzatu zuten hilabete hasieran. "Elkarte askok parte hartzen dute Lilatoian. Duela urte batzuk Pasaia-Lezo ikastolatik Kilometroak taldea atera eta talde handienaren saria eman zioten. Guk zergatik ez? esan genuen eta taldea osatzera animatu gara. Gainera Kilometroak ekimeneko helburu zehatzetako bat, parekidetasuna lantzea da. Lilatoia horretarako aitzakia ona zen", adierazi diote NOAUA!ri, Gattunk Lilatoia taldea osatzeaz arduratu direnek.

Asteotan, martxoaren 1eko lasterketan parte hartzeko auzo eta adin tarte ezberdinetako 40 bat emakumek eman dute izena. Apuntatu



Bulebarrean, #Kilometroak15 egunaren aldeko salmenta postua ipiniko dute igande honetan.

direnei, igandean goizeko 10:00etan banatuko zaizkie lasterketarako Gattunk kamisetak, Bulebarrean #Kilometroak15-en alde egongo den postuan. Eta bertan, kamisetak jasotzeaz gain, taldeko argazkia aterako dute. Beroketa ariek egin ostean, gero lasterketara denak. Herriarrak Lilatoiko partaideak animatzera joatera deitzen dituzte.

Martxoak 1, igandea

- Goizean zehar, Gattunk postua Bulebarreko musika kiosko ondoan.
- 10:00 Kamiseten banaketa eta talde argazkia Gattunk postuan.
- 10:30 Beroketa saioa monitorearekin Bulebarrean.
- 11:00 26. Lilatoia hasiera Bulebarretik. Ibilbidea: 5 km (Donostia erdigunetik eta Grosetik igaroko da).
- Helmuga: Donostiako Bulebarra.
- Ondoren, sari banaketa Alderdi Ederren.

Tapia eta Leturia Taldea, bitan Sutegin

Bat ez, azkenean #Kilometroak15 ekimenaren aldeko bi emanaldi eskainiko ditu Tapia eta Leturia Taldeak, larunbat honetan, otsailaren 28an. Lehenengo saiorako sarreraren salmentak izandako arrakasta ikusita, bigarren emanaldi bat antolatu dute, larunbat gaueko 22:00etarako. Hitzordu honetarako sarrerak ere aurrez eskuratu beharko dira. 15 eurotan Udarregi Ikastolako idazkaritzan, Gattunk dendan eta Txirrista tabernan. "Ez galdu aukera berri hau!", Kilometroak15 ekimeneko antolatzaileen gonbita herritarrei.

Sarrera zozketa, NOAUA!ko bazkideen artean
NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera zozketatuko ditugu. Zer egin behar da zozketan parte hartzeko? Email bat idatzi erredakzioa@noaua.eus helbidera eta ostiral honetan, otsailaren 27an, argituko dugu zein bazkidek jasoko dituen bi sarrera. Web orrian, www.noaua.eus,



19:00etako sesiorako sarrerak agortuta daude. 22:00etako saioak salgai dira.

jakinaraziko dugu. Gogoan izan, eskaintza hau soilik bazkideentzat dela.

Tapia eta Leturia Taldea

- Eguna: otsailak 28, larunbata.
- Emanaldi orduak: 19:00/22:00.
- Tokia: Sutegiko auditorioa.
- Antolatzaileak: Ikastolen Elkarte eta Udarregi Ikastola.

Matrakak Taldea ere, Gattunk Lilatoiarekin bat

Lilatoiko deialdiarekin bat egin dutenen artean dira, Matrakak Taldekoak ere (Usurbilgo Eragile Feministako kideak). "Usurbilgo emakumeok batera egin dezagun lilatoia! Parte hartzera animatzen zaituztegu! Gattunk taldea ere bertan izango dugu!", adierazi dute.

Ekitaldi ugari, Martxoak 8 egunaren bueltan

Martxoaren 5etik 8ra ekimen ugari antolatu dute Matrakak Taldekoek, Usurbilgo Udalarekin elkarlanean. Lehenbiziko hitzordua, hilaren 5ean, bertso-afaria. Sarrerak aurrez eskuratu behar dira. Adi ibili beraz:

Martxoak 1, igandea

- 11:00 26. Lilatoia, Donostiako Bulebarretik abiatuta.

Martxoak 5, osteguna

- 20:30 Bertso afaria Artzabalen. Bertso-lariak: Onintza Enbeita, Amaia Agirre eta Nerea Ibarzabal. Gai jartzailea: Ane Labaka. Txartelak 15 eurotan salgai, Artzabalen, Txirribogan eta Irratin.

Martxoak 6, ostirala

- 19:00-20:30 Tailer-hitzaldia Sutegi udal liburutegian, Yolanda Arrieta Malaxetxebarria idazlearekin. "Bizenta Mogel (1782-1854): XIX. mendeko andre argi baten ikerria (edo nola sortu den "Argiaren alaba" nobela).

Martxoak 8, igandea

- 12:30 Elkarretaratzea Mikel Laboa plazan edo frontoian, eguraldiaren arabera.
- 18:00 "Lurra, lana, izana. Usurbilgo emakume baserriarren ahotsak", dokumentalaren proiektzioa. Egileak: Maitane Arnaiz eta Leire Urkidi, Udaleko Parekidetasun Sailak antolatutako ikerketa bekaren irabazleak.



Yolanda Arrietak tailer-hitzaldia eskainiko du datorren astean Sutegin.

Barazkidun Tipi-Tapa

Jaki ezin osasuntsuagoe-kin hasiko dugu martxoa. Igande honetan ospatuko den Tipi-Taparako, barazkidun pintxo bereziak zerbitzatuko dizkigute eta tabernariak. Goiz partetik, arratsaldeko 15:00ak aldera arte, baratzeko produktu freskoekin era ezberdinetara sukaldaturiko zizka-mizka bereziak dastatzeko aukera beraz. Edari eta guzti, 2 euroren truke. Oraingoan zazpi ez, sei tabernetan; Aitzagan, Artzabal, Bordatxon, Txapeldunen, Txiribogan eta Txirristran. Aurreko Tipi-Tapa ospatu zen egunean itxi zituen eta atekak, Xarma tabernak.

Ez ahaztu pintxoak dastatzen joan ahala, Tipi-Tapa txar-teleko zigiluak biltzeaz. Zigilu guztiak lortzean, sartu txartela,



Igande honetan Aitzagan, Artzabal, Bordatxon, Txapeldunen, Txiribogan eta Txirristran. Zozketa 15:00etan egingo da Txiribogan.

tabernetan egongo diren kaxetan. Bi sariren zozketan parte hartzeko aukera izango duzue hartara; Hurbilago Elkarteko establezimeduetan xahutzeko

150 euroko erosketa txartela eta bi laguntzako afaria zuenak izan daitezke. Sarion hurrengo zozketa, martxoaren 1ean, 15:00etan, Txiribogan.

'Jelly T Tarzan eskasa', filma igandean Sutegin

Usurbilgo Udalak negu parte honetarako haurrei zuzenduta antolatu duen euskarazko zine zikloaren baitan, "Jelly T Tarzan eskasa" proiektatuko dute igande arratsaldean, 17:00etatik aurrera Sutegin auditorioan.

■ Sarrerak: egunean bertan salgai, 3 eurotan.

■ Sinopsia: Ivan Olsenek arazo ugari ditu. Eskolan burla egiten diote. Eta etxean, bere aitak ez dio kasurik egiten. Baina egun batean, Ivanek arazo denei aurre egiteko aukera izango du...



Arratsaldeko 17:00etan hasiko da.

oztopoen gainetik
EUSKARAZ
Biziko
gara

Manifestazioa
Otsailaren 28an, Donostian
17:30ean, Gipuzkoa Plazan

KONTSEILUA

NOAUA!ren webguneak helbide berria du:
noaua.eus.

NOAUA!ko helbide elektroniko guztiak ere .eus dira jada

noaua

Bezeroentzako, publizitatea jartzeko:
publizitatea@noaua.eus

Aldizkariarekin harremanetan jartzeko:
erredakzioa@noaua.eus

Elkartarekin harremanetan jartzeko:
elkartea@noaua.eus

Web orrira zuzentzeko:
noaua@noaua.eus

Hemendik aurrera gure posta elektronikoak .eus domeinua izango dute, eta .com desagertu egingo dira. Posta elektroniko berriak zure kontaktuarekin gordetzea gomendatzen dizuegu.

Eraikin berria, Zubietako

Akabo lanak. Eta lanak amaituta, ikasle, irakasle eta gurasoen aspaldiko eskaria gauzatu da; Zubietako Eskola Txikiak, eraikin berria du. Haurrak baldintza onenetan ez ziren aurrefabrikaturiko eraikinak utzi, eta jada, handitu diren instalakuntza berrietan daude. Oso pozik, eskolatik NOAUA!ri adierazi diotenez. “Oso polita geratu da. Oso atsegina da, beroa, epela da, sentsazioa oso ona da. Espero genuena baino handiagoa. Kanpotik azalera txikia zuela iruditzen zitzaigun. Barruan egonda, eskolak askorako ematen duela ikusten da”.



“Kanpotik azalera txikia zuela iruditzen zitzaigun. Barruan egonda, eskolak askorako ematen du”.

Eraikin berritik nabarmen-tzen duten ezaugarrietako bat, jasangarritasunarena da. Kontuan izan, batetik, eraikin zaharra ez dutela bota. Zutik mantendu dutela, eta gune berria lehengoko eraikinari gehitu diotela. Kostu ekonomikoak murriztea ekarri du horrek. Bestalde, ingurumenaren zaintzaren ikuspegitik, “egurrezkoa da, baina oso ondo isolatua dago. Espazio oso argitsuak dira. Ondo pentsatu da leihoak nola jarri. Eraikin berraren iparraldeko zatia, leiho txikiak gorde da. Mende-

ZUBIETA ESKOLA TXIKIA

“Egurrezkoa da eraikina, baina oso ondo isolatua dago. Espazioak oso argitsuak dira. Ondo pentsatu da leihoak nola jarri”

balde eta ekialdean lehio zabalak ditugu, hortik beroa sartzeko. Hartara, berogailu gutxiago behar da. Haurrak gelan daude, baina kanpokoa ikusten dute, inguruarekin harremanetan dira. Eraikin berrira etorri

eta bi egunera, elurra ari zuen. Opari bikoitza izan zen. Haurrak espazio berria estreinatzen, barruan goxo zeuden eta kanpoan elurra mara-mara nola ari zen ikusten zuten”.

Kohesio handiagoa

Eskolak gune handiagoa behar zuen. Egun, LH-ko bigarren mailara arteko hezkuntza eskaintza dute bertan. Guztira, 46 haur, “Ikasle altua”, eskola txikiko esanetan. Eta espazio txikia. Ikasleak aipatuta, haurrak ere oso pozik dira, eraikin berriko la-

nak noiz bukatu zain ziren. “Kaxkapen zeuden, eraikin berrira etortzeko gogo handia zuten. Beraiek ekarri zituzten euren mahai eta aulkiak. Leku aldatzea eurek egin zuten. Oso urduri, baina oso pozik daude. Gogo handia zuten, euren jatorrizko lekura bueltatzeko”, adierazi diote NOAUA!ri eskola txikitik.

Orain, hezitzaile zein haurrak, denak gune bakar eta berean daude. Lan taldea eta ikasleen artean, Zubietako hezkuntza komunitatea kohezionatuagoa dago orain.

Ikusmina sortu du eraikuntzak

Ikasgela eta jangela txukun askoak dituzte. Espazio zabalak, koloretsuak. Lau gela guztira, tartean jangela. Honez gain, psikomotrizitate gela, liburutegia eta zuzendaritzarako gune bana. Espazioa hobeto antolatua dute egun.

Instalakuntza berriak eza-gutu dituzte ikasleen seni-

deek. Ikusmina sortu du eskola txikiko erakin berriak; “gurasoak, aiton-amonak, izeba-osabak, sartzen dira. Beraiek ere txundituta geratzen dira. Oso polita dela, aterpetxe bat ematen duela. Ikusten da mimo handia jarri dutela bai udalek eta baita Eusko Jaurlaritzak”.



Eskola Txikiarentzat

Inaugurazioa larunbatean

Orain, handiagoa duten espaziora egokitzen ari dira. "Dena jartzen ari gara. Gurasoekin auzolan deialdia egin genuen. Parte hartze handia izan zen. Gurasoak etorri eta dena jarri genuen. Gero hamaiketako egin genuen. Nolabait, familiarian egin genuen inaugurazioa".

Eraikin berria zabalik dago, baina larunbat honetan, otsailaren 28an irekiera ekitaldi ofiziala egingo dute. eguerdiko 12:00etan. Eusko Jaurlaritzako eta Donostia zein Usurbilgo udal ordezkariak espero dira hitzorduan. Eta gerturatu nahi duen oro. "Gonbidatuak zau-



Eguerdiko 12:00etan hasiko da inaugurazio ekitaldia.

dete guztiok", Zubietako Eskola Txikitik adierazi dutenez. Besteak beste, instalakuntza berriok izateko eskaera bide-

ratzen lagundu duten guztiei eskerrak helarazteko baliatuko dute hitzordua. Tartean, Usurbilgo Udalak eginiko ekarpena

eskertu nahi dute; "Udalari gure eskerrak, eskola txiki hau hobetuz lagundu izaten lagundu digute eta".



www.usurbilorainadageroa.com

Hiria Antolatzeko
Plan Orokorren
Parte-hartze prozesua

**NOLAKO HERRIA NAHI DUGU?
AURRERAKIN DOKUMENTUA
2 FASEA**

Martxoak 5, 19:00etan Potxoenean

**AURRERAKIN
DOKUMENTUA.
EZTABAIDA SAIOA**



**Aldizkariako "Gazi, gozo, geza" atala
orain ere noaua.eus web orrian**



<http://www.noaua.eus>

Etxebizitzak, garajeak, motorra, lanpostuak, trukean...
Zure oharra Internet bidez igo eta kontsulta dezakezu

MERKATU TXIKIA

noaua

JEXUSMARI BORROKAN ARI DA "B" DOKTOREAREN AURKA

"B" kontabilitatea, BEZik gabeko salmenta-kanpainak eta "black" txartelak eguneroko ogia ditugun honetan, Jexusmari ausartu da terminal fiskal bat



Kamera
ezkutuaren
bideoa

◀ Jexusmari Ubarretxena (Donostiako taxilaria)



"A" gizartea lortzeko

ZATOZ EKONOMIA GARDENERA

Ausarten eta super-ausarten bila ari gara
www.ekonomiagardena.eus

🐦 #ekonomiagardena



Gipuzkoa

BERRIA

19. Korrikaren lekukoa eramán nahi?



Martxoaren 22an igandea, eguerdi partean igaroko da Korrika Usurbildik.

Martxoaren 22an, igandez inguruotara helduko den 19. Korrikan, NOAUA! Kultur Elkartek hartuko du lekukoa, Zubieta, Usurbil eta Aginagatik barrena osatuko duen ibilbide zati batean. Oraingoan, NOAUA!k bazkideoi eskaini nahi dizue, lekukoa eramateko ohorea. Lekukoa eramateko bazkide talde bat osatu nahi genuke. Animatzen? NOAUA!ko bazkide izan eta lekukoa zure eskutan izan nahi baduzu, deitu 943 360 321 telefono zenbakira edo idatzi elkarte@noaua.eus helbidera.

Kilometroa nola eskuratu

“Zure koadrilarekin, familia-rekin, lankideekin... lekukoa

LEKUKOIA, ESKUZ ESKU

“Zure lagunekin lekukoa eramán nahi baduzu, kilometro bat lortzeko aukera daukazu.

Eskuratu zure kilometroa AEKren edozein euskaltegitan”

eramán nahi baduzu, kilometroak lortzeko aukera daukazu! Eskuratu zure kilometroa AEKren edozein euskaltegitan”, antolakuntzatik berri eman dutenez. Usurbilen kasuan, Etumeta AEK euskaltegian bideratu beharko dira eskaerak.

Korrika Laguntzaile

Korrika Laguntzailea kanpaina

martxan jarri dute beste urte batez. 12 euroko ekarpena egiten baduzue, trukean, “laguntzaile zarela adierazten duen pina, Euskal Herriko ehunka komertziotan beherapenak izatea ahalbidetuko dizun Korrika Laguntzailea txartela, eta txartela erabili ahal izango den komertzioen katalogoa” eskura dezakezue.

Pina, txartela eta katalogoa, Etumeta AEK euskaltegian eskatu daitezke. Edo Internet bidez. Korrikako materiala ere salgai dute Etumeta AEK euskaltegian.

Informazio gehiagorako:

Nagusia, 43
607 609 379
korrika.eus

Nafarroako olioia eskatzen hasi da jendea

Errigora ekimenekoak Nafarroako olibarekin eginiko olio bidoiak saltzen ari dira. Usurbilen, NOAUA!ren bitartez. Eskaerak egiteko epea otsailaren 20an zabaldu zen eta dagoneko hainbat herritar hurbildu dira, olioia eskatzera. Emaildez ere egin daitezke erreserba.

Helbide honetara idatzi dezakezue; usurbil@erri-

gora.eus. Edo bestela, etorri NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzara, eta eskuratu izen emate orria. Martxoaren 4ra arte dago eskaerak egiteko epea.

Bi olio bidoi hauek dituzue eskuragarri:

■ Oliba olio birjina estra ekologikoa: 5 litro, 28 euro.

■ Oliba olio birjina estra kon-

bentzionala: 5 litro, 20 euro. Kanpaina honen bitartez, Nafarroa hegoaldeko nekazari eta ekoizleen ogibidea babestu eta ingurumena zaindu nahi dute. Merkaturatze bide berri bat zabalduz, auzolana sustatuz eta ekoizle zein kontsumitzaileentzat egokiak diren prezioak finkatuz. Informazio gehiago: errigora.eus

